




HIZKUNTZA- KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

ENTZUMENA ETA IRAKURMENA

EUSKARA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 4.

EREDU PROBAK



ENTZUMENA

ENTZUMENA 1



LANA, EMAKUMEA ETA JATORRIA

1. Non egin dute entzundako ikerketa soziologiko hori?

- A) Turkian.
- B) Espainian.
- C) Euskadin.
- D) Alemanian.



2. Lan-elkarrizketa lortzeko, zenbat aldiz gehiago bidali behar du curriculuma emakume turkiar batek?

- A) Bi aldiz.
- B) Hiru aldiz.
- C) Lau aldiz.
- D) Nahi beste aldiz.

3. Zer aldatzen zuten emakumeen currikulumetan?

- A) Izena eta adina.
- B) Izena eta argazkia.
- C) Jaioterria eta sexua.
- D) Argazkia eta jaioterria.

4. Osatu honako esaldi hau, testuak esaten duenaren arabera:

Izen turkiarra badu eta argazkian beloaz azaltzen bada, aukera du lan-elkarrizketara deitua izateko.

- A) %2ko
- B) %8ko
- C) %4ko
- D) %14ko

5. Ikerketak dio Alemanian emakume turkiarrek benetako eragozpenak dituztela... B4EE1762

- A) Lanari eusteko.
- B) Lan-baldintzak betetzeko.
- C) Lana zein lan-elkarrizketa lortzeko.
- D) Lan-elkarrizketetan komunikatzeko.

6. Eta azterketa-lan honek hauxe erakusten du emakume musulmanei buruz: B4EE1763

- A) Lan-merkatuan sartzeko okerrago prestatuta daude.
- B) Lan merkatuan sartzeko eragozpenak dituzte.
- C) Ez dira lan-merkatuan sartzen ikasketa gutxiago dituzte eta.
- D) Prestatuta daude eta euren ikasketen mailako lana lortzen dute.

7. Enpresak zertarako egin zuen ikerketa? B4EE1764

- A) Izen alemaniarra izateak duen garrantzia ikertzeko.
- B) Lana lortzeko beloa izateak garrantzia zuen ala ez aztertzeko.
- C) Elkarrizketetara eta lanera deitze edo ez deitzearen arrazoiak ikertzeko
- D) Emakume turkiar eta alemaniarren artean elkarrizketetara deituak izateko portzentajeak konparatzeko.

8. Zein motatako irratsaioa da? B4EE1765

- E) Albistegia.
- F) Magazina.
- G) Elkarrizketa.
- H) Bakarrizketa.

ITEMEN EZAUGARRIAK ETA ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

ITEM	1
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	INFORMAZIO ZEHATZA HAUTATZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Helbururako proposatutako informazio egokiak eta datu garrantzitsuenak aurkitzen ditu.
ERANTZUN ZUZENA	D

ITEM	2
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	INFORMAZIO ZEHATZA HAUTATZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Helbururako proposatutako informazio egokiak eta datu garrantzitsuenak aurkitzen ditu.
ERANTZUN ZUZENA	C

ITEM	3
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	INFORMAZIO ZEHATZA HAUTATZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Datu garrantzitsuak aurkitu.
ERANTZUN ZUZENA	B

ITEM	4
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	INFORMAZIO ZEHATZA HAUTATZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Datu garrantzitsuak aurkitu.
ERANTZUN ZUZENA	C

ITEM	5
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	AHOZKO TESTUAREN EDUKIA BALORATU ETA INTERPRETATZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Idea nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten ditu.
ERANTZUN ZUZENA	C

ITEM	6
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	AHOZKO TESTUAREN ZENTZU OROKORRA ULERTZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Ahozko testuaren zentzu orokorra antzematen du.
ERANTZUN ZUZENA	B

ITEM	7
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	AHOZKO TESTUAREN ZENTZU OROKORRA ULERTZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Ahozko testuaren zentzu orokorra antzematen du.
ERANTZUN ZUZENA	A

ITEM	8
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	AHOZKO TESTUAREN FORMA BALORATU ETA INTERPRETATZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Ahozko testuaren generoa identifikatzen du.
ERANTZUN ZUZENA	A

ENTZUMENA 2



ISPASTER

1. Zenbat biztanle ditu Ispasterrek?

- A. Zazpiehun.
- B. Zortzirehun.
- C. Zortzihun baino gutxiago.
- D. Zortzihun baino gutxiago.

2. Zer egin zuten 2011n?

- A. Eguzki plakak instalatu.
- B. Herriko argi guztiak aldatu eta LED-ak jarri.
- C. Biomasan oinarritutako berogailu sistema jarri.
- D. Frontoian eta kultur etxean berogailu ekologikoak jarri.

3. Zer lortu dute dagoeneko Ispasterren?

- A. Hamar etxetan berogailuak berriztea.
- B. Herri guztia proiektu honetan lanean jartzea.
- C. Hornidura berriztagarria jartzea etxe guztietan.
- D. Kontsumo publiko guztia jartzea bere energia propioarekin.

4. Zein da ispasterarren asmoa?

- A. Kontsumoa eta CO2 gutxitzea.
- B. Autonomoak izatea eta CO2 neurtzea.
- C. CO2 gutxitu eta baliabideekin autonomoak izatea.
- D. Beren baliabideak egokitzea eta CO2 emisioak gutxitzea.

5. Zein testu genero da hau?

- A. Ikerketa.
- B. Iragarkia.
- C. Elkarrizketa.
- D. Erreportajea.

6. Testu hau nori zuzenduta dago?

- A. Ikasleei.
- B. Gizarte orori.
- C. Zientzialariei.
- D. Udaletako agintariei.

7. Zein da testu honen helburua?

- A. Informatzea.

- B. Entretenitzea.
- C. Ispasterreko egoera deskribatzea.
- D. Energia berriztagarrien alde argudiatzea.

8. Zein da Ispasterren martxan duten programaren xedea?

- A. CO2 emisioak aztertzea.
- B. Energia kontsumoa handitzea.
- C. Baliabideen autonomoak sustatzea.
- D. Eraikin pribatuen energia ordaintzea.

ITEMEN EZAUGARRIAK ETA ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

ITEM	1
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	INFORMAZIO ZEHATZA HAUTATZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Entzundako informazio zehatza eta testuaren datu garrantzitsuenak aurkitu eta antolatzen ditu.
ERANTZUN ZUZENA	C

ITEM	2
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	INFORMAZIO ZEHATZA HAUTATZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Entzundako informazio zehatza eta testuaren datu garrantzitsuenak aurkitu ditu.
ERANTZUN ZUZENA	B

ITEM	3
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	INFORMAZIO ZEHATZA HAUTATZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Entzundako informazio zehatza eta testuaren datu garrantzitsuenak aurkitu ditu.
ERANTZUN ZUZENA	D

ITEM	4
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	INFORMAZIO ZEHATZA HAUTATZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Entzundako informazio zehatza eta testuaren datu garrantzitsuenak aurkitu eta antolatzen ditu.
ERANTZUN ZUZENA	C

ITEM	5
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	AHOZKO TESTUAREN KOMUNIKAZIO-EGOERAREN ELEMENTUAK ETA XEDEA ANTZEMATEA
LORPEN ADIERAZLEA	Ahozko testuaren generoa identifikatzen du.
ERANTZUN ZUZENA	D

ITEM	6
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	AHOZKO TESTUAREN KOMUNIKAZIO-EGOERAREN ELEMENTUAK ETA XEDEA ANTZEMATEA
LORPEN ADIERAZLEA	Testuaren hartzailea identifikatzen du.
ERANTZUN ZUZENA	B

ITEM	7
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	AHOZKO TESTUAREN KOMUNIKAZIO- EGOERAREN ELEMENTUAK ETA XEDEA ANTZEMATEA
LORPEN ADIERAZLEA	Ahozko testuaren helburua identifikatzen du.
ERANTZUN ZUZENA	A

ITEM	8
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	TESTUAREN ZENTZU OROKORRA ULERTZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Testuaren zentzu orokorra antzematen du
ERANTZUN ZUZENA	C

IRAKURMENA

ENTZUMENA 2

INOR EZ DA HAITI

“Gauzak existitzen dira ikusi egiten ditugulako”, Oscar Wildek esana. Orain hilabete doi Matthew urakanak sekulako deskalabrua utzi zuen Haitin, baina ikusi, apenas ikusi genuen irudirik, apenas bizpahiru egunez. Laster erretiratu ziren bertan zeuden kamera apurrak, bertan zeuden kazetari bakanak. Aio: lekukoaren faltan, finitua zen tragedia. Protesta bakarren bat kenduta —*Nobody is Haiti* (Inor ez da Haiti)— isiltasun zerratua. *The Washington Post*ek bertako tragedia kontatu digun arte, baina, ai, egunkariak ohi duten bidetik: e, aizu, zoaz Haitira bertako hauteskundeak jarraitzera, eta, bide batez, ea zertan den orain hilabeteko katastrofea. Hala jakin dugu zertan den: urakanak zortziehun mila pertsona utzi zituen non babesturik eta zer janik gabe.

Mundua —eta bertan gu— aise asko pasatzen da *Je suis Charlie* esatetik *Nobody is Haiti* praktikatzera. Denok gara Charlie, inor ez da Haiti, fartsak eta simulakroek ez dute amaierarik.

Angel Lertxundi

1. Zertarako hasten da testua Oscar Wilde esaldiarekin?

- A. Ondoren sakonago azalduko duenaren adibide zehatz bat jartzeko.
- B. Azaltzeko gehiago erreparatu behar dugula ikusten ditugun gauzetan.
- C. Adierazteko lekukorik ez dituzten gertakizunek garrantzia galtzen dutela.
- D. Autore ezagun batek azaltzen duen egia handi batez hasiera egokia emateko.

2. Zer gertatu da Matthew urakanarekin?

- A. Ez dela inongo hedabideetan azaldu.
- B. Ez duela oihartzun handia izan komunikabideetan.
- C. Aurreko urakana bezain eraginkorra izan ez denez, oharkabean joan dela.
- D. Tragedia handia izan dela, hortaz, hedabideetako profesional ugari aztertu dutela.

3. Hedabideak Haitira joan dira albistea jasotzera?

- A. Bai, baina horien presentzia urria izan da.
- B. Ez; ez dira egon, albiste garrantzitsuagoak baziren eta.
- C. Bai, bertan egon dira eta albistea behar bezala eman dute.
- D. *The Washington Post* egunkariaren kazetariak joan dira soilik.

4. Zein da Matthew urakanaren gainean arreta jarri duen mugimendua?

- A. Inork ez.
- B. Inor ez da Haiti.
- C. Isiltasun zerratua.
- D. *The Washington Post*.

5. Hedabide batzuetan aztertu da, baina nola?

- A. Hala moduz, garrantzia handia eman gabe.

- B. Era egokian, *The Washington Post* egunkarian atera ondoren.
- C. Arreta handiz, baina jakin denean urakana izugarria izan dela.
- D. Oso gaizki: inork ez du katastrofeari buruzko informazioa eman.

6. Testuaren zein espresioek markatzen du erregistro arrunta?

- A. Apenas.
- B. E, aizu, zoaz.
- C. *Je suis Charlie*.
- D. zortziehun mila pertsona utzi zituen non babesturik eta zer janik gabe.

7. Non uste duzu atera dutela testua?

- A. Interneten.
- B. Liburu batean.
- C. Egunkari batean.
- D. Testu-liburu batean.

ITEMEN EZAUGARRIAK ETA ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

ITEM	1
DIMENTSIOA	IRAKURMENA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	TESTUAREN FORMA BALIOETSI ETA INTERPRETATZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Testuaren formari buruzko hipotesiak egiten ditu.
ERANTZUN ZUZENA	C

ITEM	2
DIMENTSIOA	IRAKURMENA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	INFORMAZIO ZEHATZA HAUTATZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Proposatutako helburua betetzeko, informazio espezifiko baliatzen du.
ERANTZUN ZUZENA	B

ITEM	3
DIMENTSIOA	IRAKURMENA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	TESTUAREN EDUKIAREN INTERPRETATU ETA BALORATU
LORPEN ADIERAZLEA	Testuaren elementu inplizituak inferitzen ditu.
ERANTZUN ZUZENA	A

ITEM	4
DIMENTSIOA	IRAKURMENA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	INFORMAZIO ZEHATZA HAUTATZEA
LORPEN ADIERAZLEA	Proposatutako helburua betetzeko, informazio espezifikoa baliatzen du.
ERANTZUN ZUZENA	B

ITEM	5
DIMENTSIOA	Entzumena
EBALUAZIO IRIZPIDEA	TESTUAREN EDUKIAREN INTERPRETATU ETA BALORATU.
LORPEN ADIERAZLEA	Testuaren elementu inplizituak inferitzen ditu.
ERANTZUN ZUZENA	A

ITEM	6
DIMENTSIOA	IRAKURMENA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	TESTUAREN KOMUNIKLAZIO-EGOERARENENTUAK ETA XEDEA ANTZEMATEA
LORPEN ADIERAZLEA	Erregistroa ezagutzen du.
ERANTZUN ZUZENA	B

ITEM	7
DIMENTSIOA	IRAKURMENA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	TESTUAREN KOMUNIKLAZIO-EGOERARENENTUAK ETA XEDEA ANTZEMATEA
LORPEN ADIERAZLEA	Erabileraren eremua identifikatzen du.
ERANTZUN ZUZENA	C